

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea Peñacerrada-Urizaharra udal gimnasioaren zerbitzuaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari

Udalbatzak, 2025eko irailaren 16an egindako osoko bilkuran, hasierako onspena eman zion Peñacerrada-Urizaharra udal gimnasioaren zerbitzuaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren gainean.

Hori guztia argitara ematen da, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoa betez.

Peñacerrada-Urizaharra, 2025eko irailaren 17a

*Alkatea*

*ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ*